



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2026/13

DEIALDIA, KIROLAREN ZEIN ARIKETA FISIKOAREN ARLOKO ENTITATEEI
DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN EMATEKOA, 2026an KIROL
JARDUERA PUNTUALAK ANTOLATZEAGATIK

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egitekoa, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

2026. urterako Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da Iruñean edozein adinetako jendeari zuzendutako kirol-ekitaldiak eta aisiako kirola antolatzeko dirulaguntzak ematea. Plan horren 4. ildo estrategikoan (Kirola) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat kirol-jarduera puntualak antolatzen dituzten kirolaren zein jarduera fisikoaren arloko entitateei laguntzak emateko. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea 2026an kirol jarduera puntualak antolatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko kirolaren zein jarduera fisikoaren arloko entitateei.
2. Deialdiaren helburua: Iruñean sustapen-eragina duten unean uneko kirol-ekitaldiak egiten laguntzea, sustatze aldera hiriko lehiaketako eta aisialdiko kirol-jarduera, haiekin lotutako jarduera ekonomikoa eta tokiko turismoan daukan inpaktua. Ekitaldi horietan genero-ikuspegia eta ingurumen-iraunkortasuna zeharka txertatzea ere bultzatuko da.
3. Ekintza, proiektu, jokamolde eta jarduera diruz lagungarriak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak: Deialdi honen ondorioetarako, “kirol jarduera puntual” gisa joko da honako ezaugarri hauek guztiak betetzen dituen gertakari edo jazoera garrantzitsu eta programatua: a) iraupena, oro har, 1 egun eta 3 bitarte izatea (salbuespenez inoiz ez 15 egun baino gehiago). b) kirol izaerakoa izatea, hala eskumena duten organismo publikoek aitortutako modalitate ofizialetan nola ez ofizialetan (betiere azken horiek ariketa fisikoa egitea badakarte eta gizartean eragin



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

garrantzitsua badute).

c) aisialdikoa edo lehiakorra izatea.

d) federazio arloko esparru instituzional batean edo hortik kanpo egina izatea.

e) adin orotako jendeari zuzendua izatea.

f) parte-hartze librekoa eta Iruñeko herritarrei zuzendua izatea, muga bakarra izanik kirol izaerako balizko irizpide legalak eta erregelamenduzkoak.

g) edozein kirol-eremutan egina izatea, baita birtualki sortutakoetan ere.

h) berekin ekartzea kudeaketa-proiektu bat eta antolamendu-egitura bat sortzea, besteak beste, aurre egin ahal izateko –gehiago edo gutxiago ekitaldiaren garrantziaren arabera– honako hauei: izen-emateak, baimen ofizialak, arauak, behar diren aseguru-estaldurak, segurtasuna, hedapena eta komunikazioa, protokoloa, langileak (epaileak eta boluntarioak), ostatu- eta mantenu-gastuak, logistika, barne-antolamendua, eta baliabideak lortu eta kudeatzea.

Ez dira kirol-ekitalditzat hartuko solasaldiak, hitzaldiak edo antzeko jarduerak.

Dirulaguntzaren xede diren kirol-ekitaldi puntualek, aurreko baldintzez gain, jarraian aipatzen diren betekizunak bete beharko dituzte ezinbestean. Bete ezean, eskabidea ez da onartuko:

-- Oro har, osorik edo hein batean Iruñeko udal-mugartean gauzatzea. Dirulaguntzaren xede den jarduerak, salbuespen gisa, Iruñeko udal-mugartea gainditzen badu, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka, halako moduz non baldintza horrek aski justifikaturik gelditu beharko baitu espedientean, txosten arrazoitu baten bitartez, dirulaguntza eman baino lehen.

- Kirol-ekitaldiak 2025eko abenduaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitartean egitea. Ez dira onartuko programatutako baina azkenean bertan behera gelditutako ekitaldien gastuak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta betiere antolakuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik badira.

- Entitate bakoitzak gehienez ere lau ekitaldi aurkez ditzake, deialdi honen C.3 apartatuak aurreikusitako banakako zenbatekoen mugekin bat.

- Dirulaguntzaren xede diren jardueren ezaugarri zehatz gisa adierazitakoak (H.1 apartatua) lehentasun-maila bakoitzeko.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 205.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 50/34100/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Esleitutako 205.000,00 euroak honela banatuko dira: 90.000,00 € jotzen duen lehenengo partea deialdi honetako H apartatuko 1. lehentasunari dagozkion eskabideen artean banatuko da (A Taldea); 40.000,00 € jotzen duen bigarren partea 2. lehentasunari dagozkion artean banatuko da (B Taldea), eta 75.000,00 € jotzen duen hirugarren partea 3. lehentasunari dagozkion artean (C Taldea). Talderen batean aurrekontua sobera geratzen bada, hori beste taldeei esleitzen ahalko zaie, lehentasun-ordenaren arabera.

Entitate bakoitzari emanen zaion diru-kantitateak ezin izanen du gainditu aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren % 100, eta, edonola ere, banakako muga hauek egonen dira:

- A Taldea (1. lehentasuna): 50.000,00 € bitarte

- B Taldea (2. lehentasuna): 15.000,00 € bitarte

- C Taldea (3. lehentasuna): 10.000,00 € bitarte



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Bi hainbanaketa mota egonen dira, eta era bananduan aplikatuko zaizkie deialdi honetako C.3 apartatuan aurreikusitako taldeetako bakoitzari:

Lehenik, "murriztapen-hainbanaketa", behin eskaera guztiak ebaluatuta H.1 eta H.2 apartatuetako irizpideei jarraituz, zenbatekoak C.3 apartatuan talde bakoitzari esleitutako gehieneko aurrekontua gaingiduz gero. Bigarrenik, "handitze-hainbanaketa" bat edo zenbait, behin lehenengo hainbanaketa eginda C.3 apartatuan jasotako banakako gehieneko zenbatekoa gaingiduz duten eskaerak egonez gero, edo jaso beharreko dirulaguntza jardueraren defizita baino handiagoa baldin bada.

Lehenengo hainbanaketa proportzioan aplikatuko zaie talde bakoitzean onartutako eskaera guztiei. Bigarrenean, eskaera batzuetan potentzialki ken daitezkeen kopuruak proportzioan banatuko dira kasuan kasuko taldeko gainerako eskaeren artean, betiere gaingiduz gabe hala banakako gehieneko kopuruak nola jardueraren defizita; beraz, behar beste hainbanaketa egiten ahalko dira.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	205.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Legearekin bat eratuta egotea eta dagokien erregistroan izena emanda izatea eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.

2. Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

3. Estatutuetan helburuen artean jasoak izatea deialdiaren xedeari loturiko jarduerak egitea (kirol zein ariketa fisikoaren arloko jarduerak antolatzea eta sustatzea).

4. Iruñean edukitzea taldearen egoitza soziala eta zerga-egoitza. Betekizun hori ez da nahitaezkoa izan, salbuespenez, nazioarteko ekitaldiak antolatzen dituzten entitateentzat, ekitaldi horiei deialdi honetan emandako interpretazioaren arabera.

5. Administrazio-bideko zehapen irmorik jaso ez izana 2025ean edo 2026an jarraian aipatzen diren legeetan "oso astun" gisa tipifikatutako arau-hausteengatik:

a. 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, Kirolean egon daitezkeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

intolerantziaren aurkakoa.

- b. 15/2001 Foru Legea, uztailaren 5koa, Nafarroako Kirolari buruzkoa.
- c. 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Ikuskizun Publikoak eta Aisia-jarduerak arautzen dituenak.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

Lehena

Deialdi honen kargura dauden dirulaguntzen onuradun diren entitate eskatzaileek nahitaez adierazi beharko dute –izapide telematikoan dagokion laukiaren bidez– ea ezinbestean bete behar dituzten Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritako gardentasun-betebeharrak. Bete behar badituzte, izapide telematiko horretan bi agiri txertatu beharko dituzte: batetik, entitatearen zuzendaritza-karguen organigrama, haien eginkizunak, arduraldiak eta ordainsariak biltzen dituen agiria; eta bestetik, entitateak eskuragai dituen urteko azken kontuak biltzen dituenak.

Halaber, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, erakunde onuradunek Iruñeko Udalari eman beharko diote, honek aurretik eskatuta eta hamar eguneko epean, aipatutako 5/2018 Foru Legearen I. tituluan ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia. Balizko eskaera horiek Herritarren Karpeta bidez eginen dira, hain zuzen, izapidetzea egiteko baliozko ziurtagiri elektronikoaren jabe den pertsonaren karpeta.

KK

Bigarrena

Dirulaguntzaren xede diren kirol-eskaintzek ez dute izen ofizialean “udal” izenlaguna eramanen, ez baitira Udalarenak. Hala ere, jarduera bakoitzari emandako izenaren testu-lerro berean, jardueraren eragin sozialen inguruan entitate bakoitzak hartutako konpromiso boluntarioei buruzko sinbolo txiki edo etiketa informatibo batzuk sartu beharko dira (H.2 apartatua). Sinbolo edo etiketa horiek herritarrei informazioa emateko izanen dira, eta jardueren izenen ondotik jarri edo kendu beharko dira entitatea www.pamplona.es/eu/gaiak/kirola webgunean argitaratutako zerrenda eguneratuetan sartzen den edo ez aintzat hartuta. Orri horretan deskargatzen ahalko dira, halaber, aipatu sinbolo horiek. Iruñeko Udalak publikoki hedatzen ahalko ditu, egoki jotzen dituen



bideetatik, etiketaren bat jaso duten berdintasunari edo jasangarritasunari buruzko proiektuak, betiere arlo horretan jardunbide onenen ereduak ikusarazte aldera.

Hirugarrena

Aplikatzekoa den ekitaldietarako, bete egin beharko dira Ekitaldi Publikoei eta Jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuan ezarritako ingurumen-jasangarritasuneko neurriak.

Laugarrena

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Behar bezala justifikatuta dauden aurreikusi gabeko inguruabarrengatik beharrezkoa baldin bada proiektuan edo jardueran aldaketaren bat egitea –betiere aldaketek ez badute proiektuaren funtsa aldatzen–, idatziz eskatu beharko da –eskabide bat aurkeztuz– dirulaguntza kudeatzen duen alorraren baimena, aldaketa horien berri eduki bezain laster, betiere proiektua egin baino gutxienez 15 egun lehenago eta aldaketaren arrazoia aurkeztuta. Proiektuan aldaketak egiten ahalko dira, balizko aldaketak dirulaguntza kudeatzen duen unitateak aldeztu aurretik baloratuta eta baimenduta.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea HILABETEKOA izanen da, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Kasu horretan, agiri horiek noiz, zergatik eta zein prozeduratan aurkeztu ziren adierazi beharko du.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria hori deialdi honen IV. eranskinean jasotako ereduarekin bat egin beharko da, eta berdintasun- edo jasagarritasun-ekintzen proiektu boluntarioaren azalpena eduki beharko du, deialdiaren H.2 apartatuarekin bat, halakorik egiten bada. Deialdia argitaratzen denerako ekitaldiak gauzatu badira dagoeneko, IV. eranskin bera erabiliko da.

g) Aurrekontua: diru-sarrerak eta gastuak aurkezteko gidoia, deialdi honen V. eranskinarekin bat, salbu eta deialdia argitaratzen denerako ekitaldiak gauzatu badira dagoeneko eta VI. eranskina (Justifikazioa: ordaindutako fakturen/gastuen eta diru-sarreraren zerrenda) aurkeztu badezakete; kasu horietan ez dute aurkeztu beharko aipatutako V. eranskin hori.

Modu telematikoa egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kaitatuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

H.1. JARDUERAREN LEHENTASUN-MAILAREKIN BAT, ETA LEHIAKETAREN KATEGORIAREN ETA MAILAREN ARABERA



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

H.1.1. A taldea: 1. lehentasun-maila. Nazioarteko kirol-ekitaldi puntualak eta bestelako ekitaldiak, Iruñeko Udalak beste udalerri batzuekin dituen senidetze-harremanen ondorioz egindakoak. Ekitaldi mota horietarako, dirulaguntzaren zenbatekoa gastu-aurrekontuaren % 25 bitarte izaten ahalko da.

Iruñeko udal-mugartetik kanpoko herrietatik igarotzen diren ekitaldien kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa gastuen % 25era bitarte izaten ahalko da, honako kasu hauetan:

- Egun bakarreko ekitaldiak: ekitaldiaren irteera zein helmuga Iruñeko udal-mugaratean egingen da, edo, salbuespen gisa, horietako bat bakarrik egiten denean, betiere ekitaldiak hirian duen eragin ekonomiko eta soziala justifikatuta badago.

- Bi egun edo gehiagoko ekitaldiak: gutxienez etapen % 50 Iruñeko udal-mugartetik irten edo Iruñeko udal-mugartera heldu beharko dute, edo, salbuespenez, portzentaje hori lortzen bada etaparen bat Iruñeko udal-mugartetik irten edo iritsi eta beste etapa batzuk gehienez ere mugartetik 1.000 metroko erradioan irteera edo helmuga badute. Iruñeko udal-mugartetik kanpoko etapak kontatzeko justifikatuta geratu beharko da ekitaldiak hiriko baliabide turistikoetan, ostalaritzan eta ostatuetan duen eragina nabarmena dela eta, aldi berean, ikusleengan eta Iruñeko kirolariengan oihartzun nabarmena duela.

Ekitaldiaren parte handi bat Iruñeko udal-mugartetik kanpoko herrietatik igarotzen den gainontzeko kasuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa gastu-aurrekontuaren % 12,50 bitarte izaten ahal da. Aurreko portzentaje horiek % 5 bitarte handituko dira berdintasun- edo jasangarritasun-proiektu boluntarioarekin konpromisoa hartzen duten entitateen kasuan, deialdi honetako H.2 apartatuan ezarritakoarekin bat.

Entitate berak antolatutako kirol-ekitaldi bakarra diruz laguntzen ahalko da 1. lehentasun-mailaren barruan.

Deialdi honen ondorioetarako, "nazioarteko kirol-ekitaldi puntualak" honako ezaugarri hauek guztiak bete beharko dituzte:

- o Dagokien Nazioarteko Kirol Federazioaren egutegi ofizialaren parte izanen dira.
- o Iraupen orokorra ez da 8 egun baino gehiagokoa izanen, salbu Iruñeko udalerrian parte batean bakarrik egiten diren ekitaldietan; horietan luzexegoa izaten ahalko da.
- o Lehiaketa-izaera izanen dute, eta kategoria senior edo absolutua (kirol bakoitzaren Araudi propioarekin bat). Ekitaldia osatuko balute, lehiaketaren egunetan bertan, senior edo absolutua ez diren beste kategoriek, baina lehentasun-maila honetan aurreikusitako gainerako ezaugarriak beteko balituzte, haien gastuak hemen egotzi ahalko lirateke, betiere aipatutako kategoria desberdinetako parte-hartzea ez balitz proba senior edo absolutuetako parte-hartzaileen % 10 baino gehiago. Ehuneko hori gaudituko balitz, senior edo absolutua ez den beste kategoriei zuzenduta dagoen nazioarteko ekitaldiaren zatia behar bezala egotzi eta banatu beharko da dagokion lehentasun-mailan.
- o Erakunde publiko eskudunek aitortutako kirol-modalitate ofizialei eraginen diete, kirol jakin baten nazioarteko mailarik gorenekoak izanda.
- o Parte-hartzaileen artean herrialde ezberdinetako kirolariak dituzten ekitaldiak ezin izanen dira horregatik bakarrik sartu lehentasun-maila honetan; aurreko betekizunak ere bete beharko dituzte.

Deialdi honen ondorioetarako, "Iruñeko Udalak beste udalerri batzuekin dituen senidetze-harremanen ondorioz sortutako ekitaldiek" honako ezaugarri hauek guztiak bete beharko dituzte:

- o Beste udalerri batzuekin dituen senidetze-harreman ofizialen ondorio izatea (Frantziako Baiona, Japoniako Yamaguchi, Alemaniako Paderborn eta Kolonbiako Pamplona).
- o Iraupen orokorra ez da 3 egun baino gehiagokoa izanen, salbu Iruñeko udalerrian parte batean bakarrik egiten diren ekitaldietan; horietan luzexegoa izaten ahalko da.
- o Lehiaketakoak edo aisialdikoak izaten ahalko dira, eta edozein kategoria eta adini zuzenduak



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

(eskola-adinetik hirugarren adinera).

o Erakunde publiko eskudunek aitortutako kirol-modalitate ofizialei eragiten ahalko die, bai eta kirol-modalitate ez-ofizialei (betiere ariketa fisikoa egitea eskatzen badute eta eragin sozial adierazgarria badute).

H.1.2. B taldea: 2. lehentasun-maila. Lehiaketaren maila dela-eta garrantzi handia duten kirol-ekitaldi puntualak

Ekitaldi mota horietarako, dirulaguntzaren zenbatekoa gastu-aurrekontuaren % 25 bitarte izaten ahalko da. Iruñeko udal-mugartetik kanpoko herrietatik igarotzen diren ekitaldien kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa gastuen % 25era bitarte izaten ahalko da, honako kasu hauetan:

- Egun bakarreko ekitaldiak: ekitaldiaren irteera zein helmuga Iruñeko udal-mugaratean egingen da, edo, salbuespen gisa, horietako bat bakarrik egiten denean, betiere ekitaldiak hirian duen eragin ekonomiko eta soziala justifikatuta badago.

- Bi egun edo gehiagoko ekitaldiak: gutxienez etapen % 50 Iruñeko udal-mugartetik irten edo Iruñeko udal-mugartera heldu beharko dute, edo, salbuespenez, portzentaje hori lortzen bada etaparen bat Iruñeko udal-mugartetik irten edo iritsi eta beste etapa batzuk gehienez ere mugartetik 1.000 metroko erradioan irteera edo helmuga badute. Iruñeko udal-mugartetik kanpoko etapak kontatzeko justifikatuta geratu beharko da ekitaldiak hiriko baliabide turistikoetan, ostalaritzan eta ostatuetan duen eragina nabarmena dela eta, aldi berean, ikusleengan eta Iruñeko kirolariengan oihartzun nabarmena duela.

Ekitaldiaren parte handi bat Iruñeko udal-mugartetik kanpoko herrietatik igarotzen den gainontzeko kasuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa gastu-aurrekontuaren % 12,50 bitarte izaten ahal da. Aurreko portzentaje horiek % 5 bitarte handituko dira berdintasun- edo jasangarritasun-proiektu boluntarioarekin konpromisoa hartzen duten entitateen kasuan, deialdi honetako H.2 apartatuan ezarritakoarekin bat.

Deialdi honen ondorioetarako, "lehiaketaren maila dela-eta garrantzi handia duten kirol-ekitaldi puntualek" honako ezaugarri hauek guztiak bete beharko dituzte:

o Dagokien Espainiako Kirol Federazioaren egutegi ofizialaren parte izanen dira.

o Iraupen orokorra ez da 8 egun baino gehiagokoa izanen, salbu Iruñeko udalerrian parte batean bakarrik egiten diren ekitaldietan; horietan luzexegoa izaten ahalko da.

o Lehiaketa-izaera izanen dute, eta kategoria senior edo absolutua (kirol bakoitzaren Araudi propioarekin bat). Ekitaldia osatuko balute, lehiaketaren egunetan bertan, senior edo absolutua ez diren beste kategoriek, baina lehentasun-maila honetan aurreikusitako ezaugarriak beteko balituzte, haien gastuak hemen egotzi ahalko lirateke, betiere aipatutako kategoria desberdinetako parte-hartzea ez balitz proba senior edo absolutuetako parte-hartzaileen % 10 baino gehiago. Ehuneko hori gaindituko balitz, senior edo absolutua ez den beste kategoriei zuzendutako lehiaketaren-maila dela-eta garrantzi handiagoko nazioarteko ekitaldiaren zatia behar bezala egotzi eta banatu beharko da dagokion lehentasun-mailan.

o Erakunde publiko eskudunek aitortutako kirol modalitate ofizialei eraginen diete, kirol jakin baten nazioko mailarik gorenekoak izanda.

H.1.3. C taldea: 3. lehentasun-maila. Sustapen-garrantzia eta izaera herrikoia duten kirol-ekitaldi puntualak, e-sport aktiboak edo bestelako kirol-ekitaldi birtualak barne.

Ekitaldi mota horietarako, dirulaguntzaren zenbatekoa gastu-aurrekontuaren % 15 bitarte izaten ahalko da.

Iruñeko udal-mugartetik kanpoko herrietatik igarotzen diren ekitaldien kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa gastuen % 15era bitarte izaten ahalko da, honako kasu hauetan:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Egun bakarrekoko ekitaldiak: ekitaldiaren irteera zein helmuga Iruñeko udal-mugartean eginen da, edo, salbuespen gisa, horietako bat bakarrik egiten denean, betiere ekitaldiak hirian duen eragin ekonomiko eta soziala justifikatuta badago.

- Bi egun edo gehiagoko ekitaldiak: gutxienez etapen % 50 Iruñeko udal-mugartetik irten edo Iruñeko udal-mugartera heldu beharko dute, edo, salbuespenez, portzentaje hori lortzen bada etaparen bat Iruñeko udal-mugartetik irten edo iritsi eta beste etapa batzuk gehienez ere mugartetik 1.000 metroko erradioan irteera edo helmuga badute. Iruñeko udal-mugartetik kanpoko etapak kontatzeko justifikatuta geratu beharko da ekitaldiak hiriko baliabide turistikoetan, ostalaritzan eta ostatuetan duen eragina nabarmena dela eta, aldi berean, ikusleengan eta Iruñeko kirolariengan oihartzun nabarmena duela.

Ekitaldiaren parte handi bat Iruñeko udal-mugartetik kanpoko herrietatik igarotzen den gainontzeko kasuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa gastu-aurrekontuaren % 7,50 bitarte izaten ahal da. Gastu-aurrekontuaren % 7,50 hori bera aplikatuko zaie e-sport aktiboaren inguruko ekitaldi guztiei edo bestelako kirol-ekitaldi birtualei. Aurreko portzentaje horiek % 5 bitarte handituko dira berdintasun- edo jasangarritasun-proiektu boluntarioarekin konpromisoa hartzen duten entitateen kasuan, deialdi honetako H.2 apartatuan ezarritakoarekin bat.

Deialdi honen ondorioetarako, "sustapen-garrantzia eta izaera herrikoia duten kirol-ekitaldi puntualek, e-sport aktiboek edo bestelako kirol-ekitaldi birtualek" honako ezaugarri hauek guztiak bete beharko dituzte:

- o Federazioen egutegi ofizialen parte izan, edo ez.
- o Iraupen orokorra ez da 3 egun baino gehiagokoa izanen, salbu Iruñeko udal-mugartean parte batean bakarrik egiten diren ekitaldi fisikoetan –ez birtualetan–; horietan luzexeagoa izaten ahalko da.
- o Lehiaketakoak edo aisialdikoak izaten ahalko dira, eta edozein kategoria eta adini zuzenduak (eskola-adinetik hirugarren adinera).
- o Erakunde publiko eskudunek aitortutako kirol-modalitate ofizialei eragiten ahalko die, bai eta kirol-modalitate ez-ofizialei (betiere ariketa fisikoa egitea eskatzen badute eta eragin sozial adierazgarria badute).
- o E-sport aktiboen inguruko ekitaldiak edo bestelako kirol-ekitaldi birtualak kontuan hartzen ahalko dira, betiere, aurreko ezaugarriez gain, honako hauek betetzen badituzte:

a) Jarduera egiterakoan, ariketa fisiko zehatz eta agerikoa eskatzea, eta ez jarrera estatikoetan eta sedentarioetan parte-hartzea eskatzen dutenak.

b) Izaera bortitza ez izatea, osagai ludikoa nagusituz.

c) Errealitate birtualeko edozein gailu edo teknologia erabili ahal izatea, bide ematen duena pertsona ugari aldi berean egiteko eta elkarri eragiteko.

d) Bermatzea parte-hartzaileen % 30 baino gehiago Iruñekoak direla eta haren sustapena Iruñeko herritarrei zuzendu zaiela, besteak beste.

H.2). BERDINTASUN- EDO JASANGARRITASUN-PROIEKTU BOLUNTARIOA

Kirol-ekitaldi horretan bertan zeharka berdintasun- edo jasangarritasun-proiektu boluntario bat egiten duten entitateek % 5era bitarte handitzen ahalko dute ekitaldien gastua finantzatzeko ahalmena. Bi proiektu mota horietako edozein egiteak berekin ekarriko du gastu-ahalmena handitu ahal izatea. Hona hemen proiektu mota bakoitzak nahitaez bete beharko lituzkeen jarraibideak:

H.2.1. Berdintasun-proiektua

Azpiapartatu honetan agertzen diren bi berdintasun-ekintza dituenak. Ezingo litzateke berdintasun-proiektu bera erabili Udalaren beste dirulaguntza-deialdi batzuetan, horrek ez badakar berekin berariazko eduki



berritzaile eta berezia gehitzea.

Berdintasun-proiektuekin lotuta egiten ahal diren ekintzak:

o Gutxienez bi proba edo lehiaketa misto egotea, eta horietan, sexu ezberdineko pertsonen elkarrekin parte hartzeaz gain, talde mistoendako berariazko sariak egonen dira. Lehiaketa misto horiek aisialdikoak izan daitezke, lehiaketa ofizialaren paralelo eginda, baldin eta kirol-lehiaketa jakin baten araudi ofizial eta federatiboak ez badu halakorik aurreikusten.

o Marketin-estrategia orokor bat txertatzea ekitaldian, aldi berean berariaz zuzendua dagoena honako hauei: lehenik, erakunde antolatzailearen eskura dauden komunikazio-kanaletan, Zuzendaritza Batzordeetako pertsonen irudiak eta/edo elkarrizketak erakustea, erakundearen egungo jardueretan azpi-ordezkatua dagoen sexua ordezkatzen dutenean; bigarrenik, beren sexua edo bestelako baldintzatzaile pertsonalak direla-eta ekitaldian sustatutako kirol edo kirolean tradizionalak azpi-ordezkatutako egon diren pertsonak bereganatzera. Horrek emakume eta nesken aldeko edo gizon eta mutilen aldeko jarduketak egitea ekarriko du, entitateak aldeztu aurretik egindako diagnostikoarekin bat. Estrategia hori behar bezala dokumentatu beharko da, inplementazioan lorturiko emaitzekin batera, eta publiko egin beharko da.

o Entitateak berdintasun-proiektu bat garatu izana Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren 2025eko edo 2026ko deialdian emandako dirulaguntzarekin.

o Gehitzea, gutxienez, hitzaldi edo bestelako prestakuntza-ekintza bat, ekitaldiari zuzenean lotua eta honako ezaugarriak dituen: a) herritarrak kirol arloko berdintasunaren inguruan sentsibilizatzen zuzenduta egotea, eta b) doan eta prestigio handiko pertsonen egina izatea.

o Erakunde espezializatuek ekitaldiaren diagnostiko-txosten osoa egitea genero-ikuspegitik.

o Erakundearen berdintasun plan bat edukitzea eta behar bezala publiko egitea, hura egitea legez nahitaezkoa ez denean.

H.2.2. Jasangarritasun-proiektua

Jasangarritasun-plan bat aurkeztea, gutxienez garatuko duena Ekitaldi Publikoei eta Jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuaren II. eranskineko zerrendan agertzen diren ekintzetako BI, honako zortzi kategoria hauek bakoitzerako:

- 1. kategoria: Hondakinak prebenitzeko, berrerrabiltzeko eta kudeatzeko neurriak.
- 2. kategoria: Komunikatzeko eta sentsibilizatze neurriak.
- 3. kategoria: Kontratazio publiko ekologikoko neurriak ekitaldietan.
- 4. kategoria: Energiari buruzko neurriak.
- 5. kategoria: Urari buruzko neurriak.
- 6. kategoria: Elikadura-neurriak.
- 7. kategoria: Mugikortasuneko neurriak.
- 8. kategoria: Ingurune naturala babesteko neurriak.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatze, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Maider Beloki Unzu. Kulturako, Jailetako eta Kiroleko Alorreko zinegotzia. Ordezkoa: Iruñeko Udaleko beste zinegotzi bat.
Batzordekideak:	
1.	Íñigo Gómez Eguiluz, Kulturako, Jailetako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: Víctor Piñero Larrasoña, Iruñeko Udaleko Kulturako, Jailetako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko idazkari teknikoa.
2.	Daniel Martínez Aguado, Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduduna. Ordezkoa: Kulturako, Jailetako eta Kiroleko Alorreko beste teknikari bat.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

3.	Jon Mendinueta Luzuriaga, Erdi-mailako teknikaria, Kirol Zerbitzuari atxikia. Ordezkoa: Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko beste teknikari bat.
Idazkaria:	Kirol Zerbitzuko administraria. Ordezkoa: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko beste administrari bat

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENAREN:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Baldin eta instrukzio-organoak edo, hala badagokio, dirulaguntza kudeatzen duen teknikariak baloratzen badute aurkeztutako eskabideren batek hobeto erantzun diezaiekeela Udalaren beste dirulaguntza-deialdi baten xede edo helburuei, eta deialdi horretara aurkezteko epea oraindik amaitu gabe badago, entitate eskatzaileari eta dagokion Alorrari jakinaraziko die, entitateak hala eskatuz gero, eskabidea dagokion deialdira helarazi ahal izateko.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea: ☒ BAI ☐ EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa edo webgunea.

Aurrekoa gorabehera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruzko argibideak, aipatu legearen 20. artikuluko ezartzen dituen baldintzekin bat.



L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek dira diruz lagungarriak:

o L.1.1. Federazio-kuotak eta -kanonak: ekitaldiei lotutako federazio-kuota edo -kanon berariazkoak, dagokien egutegi ofizialean sartzekoak. Ezin izanen dira inolaz ere hemen egotzi kirolarien eta langile teknikarien denboraldiko lizentziak eskuratzeko entitateak ordaindutako federazio-kuotak, ez eta horren parte proportzional hipotetiko bat ere, ekitaldiko egunetarako hainbanatua.

o L.1.2. Ekitaldiaren berariazko arbitrajeak eta epaileak.

o L.1.3. Kirol instalazioen erabilera eta nahitaezko segurtasun pribatua ekitaldietan.

Kontzeptu horretan gastu hauek sartzen ahalko dira:

-- Bereak ez diren kirol-instalazioak erabiltzea.

- Norbere kirol-instalazioak erabiltzeak eragindako zeharkako gastuak, horiek kalkulatzeko metodologia ezin hobeki justifikatua eta arrazoitua erabiliz eskaeran, nahitaezko ezaugarri hauekin bat: a) oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauei men egitea; b) kostuak entitateek diruz lagundutako jarduera benetan gauzatzen duten aldiari dagozkionak izatea; c) kostuak diruz lagundutako jardueretako parte-hartzaile zehatzei dagozkienak izatea –eta aintzat hartzea, beharrezkoa izanez gero, balitekeela uneren batean instalazioa partekatu izatea–; d) zeharkako gastuek soilik eragitea argi- eta ur-hornidurari, garbiketa-gastuei, atezaintzakoei, instalazioaren erantzukizun zibileko aseguruari eta berokuntzari (ezin izanen da bestelako gasturik egotzi, hala nola telefono eta komunikaziokoak, segurtasunekoak oro har, mantentze- zein konponketa-lanetakoak, kudeaketa-administraziokoak eta ondasun higiezinak erostearen ondoriozko inbertsio-amortizazioak). Aurreko zeharkako gastuengatik egotzen ahal diren gastuak ez du inolaz ere gaingiduko ekitaldiaren guztizko gastuaren % 20.

- Ekitaldi jakin batzuk egiteko, federazioak entitateari ezartzen ahal dizkion segurtasun pribatuko gastuak, halakorik gertatuz gero. Ezin izanen zaie gastuei beste ezein segurtasun-gasturik egotzi.

o L.1.4: Joan-etorriak, ostatu-hartzea eta mantenua. Kontzeptu horretan gastu hauek sartzen ahalko dira:

- Dietak kanpoko federazioko teknikari eta zuzendariendako, ez bertakoendako. Auto partikularrak erabiltzen badira, gehienez ere 0,32 €/km-ko gastuak finantzatzen ahalko dira. Ekitaldiaren aurreko oso egun gutxitan edo ospakizun-egunetan bertan bakarrik egin beharko lirateke.

- Kirolarien ostatu-hartzeak eta mantenuak (bazkariak/afariak/gosariak), baldin eta aparteko gastuak ez badira eta ekitaldiaren aurreko oso egun gutxitan edo ospakizun-egunetan bakarrik egiten badira.

- Ezin izanen dira Iruñekoak ez diren eta haien jatorrizko lekuetatik ekitaldian parte-hartzera joanen diren kirolarien joan-etorriek eragindako gastuak egotzi, salbuespenezkoak eta kirolari oso zehatzendako ez bada, ordainsari gisara, betiere aparteko gastuak ez badira. Halaber, kirolarien edo teknikarien Iruñean barnako joan-etorriak bakarrik sartzen ahalko dira, baldin eta ekitaldiak iraun bitartean eta hiritik atera gabe egiten badira, eta horiek behar bezala justifikatu eta arrazoitzen badira.

- Epigrafe honetatik eta diruz lagungarria den beste edozein gastu-kontzeptutik kanpo daude edozein motatako protokolo- edo ospakizun-otorduak (ekitaldietan egon litezkeen catering-zerbitzuak barne).

o L.1.5: Kirolariaren poltsa eta jan-edan hornidurak jarduera egin bitartean. Kirolariaren poltsari dagokionez (kamisetak edo opariak), gehienez ere 10 € kirolari bakoitzeko (zergak barne).



o L.1.6. Aseguru- eta osasun-estaldurak. Epigrafe honetan sartuko dira, batetik, erantzukizun zibileko aseguruak eta istripu-aseguruak, baldin eta dirulaguntzaren xede den jarduerarako berariazkoak badira. Bestalde, kirol-ekitaldiari lotutako berariazko osasun-estaldura ere barne egonen da (anbulantzia, osasun-langileak, botika-kutxa, etab.), legeak edo erregelamenduek hala aginduta hori eskatzen ahal den partean, eta betiere kanpo utzita desfibriladoreen edo antzeko osasun-ekipamenduen erosketa. Bazter geratuko da unitate bakoitzeko 50 € (zergak kanpo) baino gehiagoko kostua duen botika-materialeko edozein elementu.

o L.1.7. Dirulaguntzaren xede den kirol-jardueraren berezko kirol-materiala, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu: a) kirol-ekitaldirako berariaz erosia izatea eta hura erabili ostean erabilezina edo ia erabilezina izatea; b) kirol-materialeko elementu bakoitzaren kostua ez izatea 100 € (zergak kanpo) baino gehiago, eta c) ez da finantzatuko dirulaguntzaren zenbatekoaren % 25 baino gehiago eskatutako materialagatik. Edonola ere, epigrafe honetatik eta diruz lagundu daitekeen beste edozein gastu-kontzeptutik kanpo daude berez kirolarien ohiko poltsetan egoten ez diren kirol-jantzien erosketa posibleak.

o L.1.8. Sariak eta garaikurrak/dominak/plakak parte hartzen duten kirolarientzat. Epigrafe honetatik eta beste edozeinetatik kanpo geratuko dira entitate antolatzaileen edo bazkide diren entitate babesleen berezko baliabideak erabiliz emandako gauzako sariak (adibidez, zenbait zerbitzutara doan sartzeko txartelak, zuzeneko deskontuak zenbait zerbitzutara eta abar).

o L.1.9. Kirol-jardueren antolatzaileendako eta boluntarioendako ordainsariak eta sariak, eta parte hartzen duten kirolariendako dietak.

o L.1.10. Logistika, megafonia, hedapena eta jardueraren berariazko marketina.

o L.1.11. Jardueraren gizarte-eragina indartzen duten ekintzak. Hemen bakarrik sartzen ahalko dira deialdiaren H.2 apartatuan jasotako betekizunak betetzen dituzten proiektu boluntarioetako ekintza zehatzek eragindako gastuak. Bestelako gizarte-ekintzek eragindako gastuak ezin izanen dira epigrafe honetan sartu, ez eta beste edozeinetan ere.

o L.1.12. Aurretik sartu ez diren bestelako gastuak, behar bezala justifikaturik eta arrazoiturik, baldin eta balorazio-batzordearen irizpidearekin bat kontuan hartzekoak badira, betiere dirulaguntzen araudian eta oinarri hauen edukietan ezarritakoarekin bat badatoz.

Epigrafe honetatik eta diruz lagungarria den beste edozein gastu-kontzeptutatik kanpo daude edozein motatako kirol- eta administrazio-zehapenak, bai eta kirol-ekitaldi batean edozein motatako urteurrenei edo efemerideei lotutako ekitaldi eta argitalpen espezifikoak ere.

Diruz lagungarria den gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 15.000 eurotik gorakoa denean –ekipamendu ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan–, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei dena delako zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu gastu diruz lagungarrien ezaugarri bereziengatik merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egin dezaketen behar adina entitaterik ez bada edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako hauek ez dira inoiz gastu diruz lagungarritzat joko: lehen aipatutakoak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: 2025eko abenduaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitarte.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 50era bitarte. Ezinen dira azpikontratatu ekitaldiaren zuzendaritza-kudeaketa tekniko orokorreko lanak.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoa. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Nazioarteko kirol-ekitaldi puntualen eta Iruñeko Udalak beste udalerrri batzuekin dituen senidetze-harremanen ondorioz izandako bestelako ekitaldien kasuan (A Taldea: H.1 apartatuko 1. lehentasun-maila) eta lehiaketaren maila dela-eta garrantzi berezia duten horietan (B Taldea: H.1 apartatuko 2. lehentasun-maila) dirulaguntzaren zenbatekoa gastuen aurrekontuaren % 25 bitarte izaten ahalko da, salbu ekitaldi jakin batzuetan, horien parte bat Iruñeko udal-mugartetik kanpoko herrietatik igarotzen bada, horietan gehienez ere gastuen aurrekontuaren % 12,50 bitartekoa izaten ahalko baita. Ehuneko horiek gehienez ere % 5 igoko dira H2 apartatuan ezarritakoaren arabera berdintasun- edo jasangarritasun-proiektu batekin konprometitutako entitateen kasuan; hori guztia C.3 apartatuan ezarritako mugekin bat.

Sustapen-garrantzia eta izaera herrikoia duten kirol-ekitaldi puntualetan, e-sport aktiboak edo bestelako kirol-ekitaldi birtualak barne (C Taldea: H.1 apartatuko 3. lehentasun-maila), dirulaguntzaren zenbatekoa gastuen aurrekontuaren % 15 bitarte izaten ahalko da, salbu ekitaldiaren parte bat Iruñeko udal-mugartetik kanpoko herrietatik igarotzen bada eta e-sport aktiboak edo bestelako kirol-ekitaldi birtualak badira, horietan gehienez ere gastuen aurrekontuaren % 7,50era artekoa izaten ahalko baita. Ehuneko horiek gehienez ere % 5 igoko dira H2 apartatuan ezarritakoaren arabera berdintasun- edo jasangarritasun-proiektu batekin konprometitutako entitateen kasuan; hori guztia C.3 apartatuan ezarritako mugekin bat.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa: A taldeko eskabideetan sartutako eskabideetan (1. lehentasun-maila): dirulaguntzak emateko ebazpenaren bidez gastuaren % 60 aurrez ordainduko da, justifikatu aurretik eta behin aplikatuta balorazio-irizpide objektiboak. Gainerako % 40a ordainduko da koadro honen P apartatuan galdatutako justifikazio-agiriak aurkeztutakoan eta ebaluatutakoan.

B eta C taldeetako eskabideetan sartutako eskabideetan (2. eta 3. lehentasun-mailak, hurrenez hurren): dirulaguntzaren guztizkoa ordainduko da dirulaguntza emateko ebazpena eman eta koadro honetako P apartatuan adierazitako agirien bidez aurkeztutako justifikazioa onetsi eta gero, eta horren emaitzaren arabera.

Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu, alde zuzenaren, dirulaguntzen entitate onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, zor dituzten zenbatekoekin konpentsatuta.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzen 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☒ Justifikazio-kontu erraztua. Justifikazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa". Deialdia argitaratzen den egunean dagoeneko eginda dauden ekitaldietarako, justifikazio hori deialdi honetako G.1 apartatuan aurreikusitako izapidean egiten da zuzenean.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Justifikazio-kontua agiri hauek osatuko dute:

a) Ebaluazio-memoria, IV. eranskina erabilia. Aplikatzekoa den ekitaldietarako, ekitaldiek ezagutzera eman beharko dituzte Ekitaldi Publikoei eta Jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretua betez sartu dituzten nahitaezko jasangarritasun-neurriak. Berdintasun- edo jasangarritasun-proiektu boluntario bat egin bada (deialdiaren H.2 apartatuari jarraikiz), dagokion deskribapen- eta justifikazio-informazioa aurkeztu beharko da.

b) Deialdian aurreikusitako VI. eranskina, beteta. Bertan azalduko da jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta agiria identifikatuta eta horren zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa-data zehaztuta; diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntzak ere zehaztuko dira, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

c) Halakorik behar balitz, ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

d) Justifikazio-agiriak gardenak eta egiazkoak izateko legezko betebeharrarekin lotutako justifikazioa webguneko izapidetan egingen da. Gardentasunari dagozkion legezko betebeharren menpe dauden entitateek soilik aurkeztu beharko dituzte agiri gehiago (zehazki, azken kontuak eta organigrama eguneratua, karguak, arduraldiak eta ordainsariak barne).

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: gehienez ere 60 eguneko epea, ekitaldia noiz amaitu eta hurrengo egunetik aitzina.

2026ko azaroan egindako ekitaldien kasuan, 2026ko abenduaren 31n amaituko da epea.

Deialdi hau argitara eman aurretik egindako ekitaldien kasuan, dirulaguntzak justifikatzeko epemuga deialdi honetako G.2 apartatuan eskabideak aurkezteko ezarritako epea izanen da, salbu eta ekitaldia epe hori baino lehen amaitu bada, betiere 60 eguneko epemugaren barruan. Kasu hauetan, justifikazioa aurkezteko epemuga gehienez ere 60 eguneko epe orokorra izanen da, ekitaldia noiz amaitu eta hurrengo egunetik aitzina.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan. Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Ez betetzea dirulaguntzaren xedea.

b) Jasotako funtsen erabilera justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

c) Onuradunek bateragarriak diren dirulaguntzen bidez jasotako zenbatekoak jardueren kostuaren muga gainditzea, muga hori zenbatean gainditu eta hainbestean.

d) Oinarri honetan aipatzen diren egiaztapenei oztopoak jartzea edo horiek egiten ez uztea.

Dirulaguntza itzularazteko ebazpena organo-emaileak emanen du, behin espedientea instruitu eta gero, betiere aplikagarriak diren legeekin bat.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

G.4 apartatuko paragrafo hau ez zaio aplikatuko deialdi honi:

“Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriei jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak”.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☐ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☐ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. eranskina. Memoria: proiektuaren deskribapena.
V. eranskina. Gastuak eta diru-sarrerak aurkezteko gidoia.
VI. eranskina. Justifikazioa: ordaindutako faktura/gastuen eta diru-sarreraren zerrenda.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*